

Udal Liburutegia

Tel. 943 770 105

e-mail: biblioteca@arrasate-mondragon.net

Katalogoa interneten:

www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua

Ordutegia:

Goizean 10:00 - 13:00

Arratsaldean 16:00 - 20:30

Zapatuetan 10:00 - 13:00

Idazleak irakurle

Arrasateko Udal Liburutegia



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Argazkiak:
Zaldiero (3, 5, 6, 7, 8 eta 9 or.)

Diseinua eta marrazkiak:
Concetta Probanza, 2006



A.M. HOMES IDAZLE ESTATUBATUARRAREN “Lezio txinatarra” ipuinean, besteak beste, elkarrengandik gero eta urrunago sentitzen den bikote baten istorioa kontatzen zaigu. Une batean ohean daude biak. Eta hala dio narra-tzaileak, senarrak alegia:


Susan irakurtzen ari da. Bere sorbaldaren gai-netik begiratzen dut: *Odol hotzean*-en 297 orrial-dea da, eta bertan Perry Smithen, hots, hiltzaile-etako baten deskribapen bat dago: “Norabiderik gabe, maitasunik gabe hazi zela ematen zuen”.

–Bakarrik sentitzen naiz –esan diot.

–Ba irakurri zer edo zer –erantzun du orrial-dea pasatu bitartean.

Uste dut nekez idatz daitekeela irakurketari buruzko gauza definitiboagorik: irakurtzeak ez digu, apika, zorion-tasuna eskuratuko, baina ziurra den gauza bakarra da irakurri bitartean ez dugula bakardaderik sentituko. Edo ez hainbeste, behintzat.

Ez dut esan nahi irakurtzeak bestelako bertuterik ez daukanik. Badauzka. Eta liburu batzuek beste batzuek baino gehiago izango dituzte, eta portzentaia ezberdine-tan. Baina literaturaren balore bat hautatu beharko



banu, horrekin geratuko nintzateke: liburuek bakardade-aren kontrako txerto gisa duten ahalmenarekin.

Literaturarekin konpainian egoteko modu ezberdinak daude, dena dela. Eta horietako batek, zalantzarik gabe, hizkuntzak baldintzatzen du. Eta gure ingurukoekin, gure seme-alabekin, gure gelakideekin, gure lankideekin erabiltzen dugun edo erabiltzen saiatzen garen hizkuntza euskara baldin bada, zer naturalago konpainia hizkuntza berean idatzitako liburuetan bilatzea baino?

Duela bospasei hamarkada galdera horren erantzuna zalantzagarriagoa zatekeen, ados. Baina ez gaur egun. Une hauetan euskaraz aukera zabala eta anitza dagoelako, bai jatorrizko lanei dagokienean, baita itzulpeni dagokienean ere. Eta horixe da kaieratxo honetan topatuko dituzun hamar idazleei eskatu dieguna hain zuzen: aukera horretatik guztitik, zeintzuk hamar liburu proposatuko zizkizuketen, eta horietako bat komentatzeko. Gonbidapenok helduleku edo, nahiago baduzu, abiapuntu egokia eskainiko dizutelakoan gaude.

Ez duzu jada izango bakarrik sentitzeko aitzakiarik. Irakurri zer edo zer.

IBAN ZALDUA

Ur Apalategi

(Paris, 1972)



- ▶ Xabier Montoia, **Denboraren izerdia**, Elkar.
- ▶ Ramon Saizarbitoria, **Rosettiren obsesioa**, Erein.
- ▶ Iban Zaldúa, **Gezurrak, gezurrak, gezurrak**, Erein.
- ▶ Juanjo Olasagarre, **Bizi puskak**, Susa.
- ▶ Jon Mirande, **Haur besoetakoa**, Pamiela.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Gizona bere bakardadean**, Pamiela.
- ▶ Hasier Etxeberria, **Eulien bazka**, Susa.
- ▶ Unai Elorriaga, **SPrako tranbia**, Elkar.
- ▶ Jon Alonso, **Hodei berdeak**, Susa.
- ▶ Joseba Sarrionandia, **Atabala eta euria**, Elkar.



Denboraren izerdia

XABIER MONTOIA

ELKAR

E leberri bati eskatzen diodana, beste gauza askoren artean, zera da, sentitzen nuen hori, baina inoiz garbi-ki formulatuta ikusi ez nuena, esatea. *Denboraren izerdia*-k eskakizun hori modu gozagarrian betetzen du. Gure gizar-teaz –euskaldunaz ari naiz– inoiz esan ez ziren zenbait gauza esaten ditu, hemengo eleberrigintzan ere topiko bihurtu diren zenbait gai –borroka armatua, sexua– maltzurki eta ausarki

desbideratuz. Belaunaldi oso baten sinbolo izan litekeen pertsonaia baten krisi-unea krudelki bezain zehazki zizelkatzen da hemen. Jon Ezenarro “polimili” ohia zinema ekoizle arrakastatsu bihurturik bizi da Madrilen, lokarri guztietatik –abertzaletasunarena, bizitza monogamoarena– aske. Baina iraganak ezustean hanka bat harrapatu eta beheraka egiten dionean bere mundu ikuskera kordokan jarriko da. Irakurleari ez zaio inoiz irudituko –gehiegitan gertatzen denez– literaturaz asko dakiela erakutsi nahi duen norbaitek egindako lana irakurtzen ari denik, eta horre-gatik da handia Montoia. Bret Easton Ellis (*American psycho*) baten estiloa dakar gogora Montoiaren prosak: labanaz idazten du eta pertsonaien larruak darabiltza paperaren ordez.



Ana Arregi

(Gasteiz, 1972)

- ▶ Joseba Sarrionandia, **Hnuy illa nyha majah yahoo**, Elkar.
- ▶ Joseba Sarrionandia, **Lagun izoztua**, Elkar.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Obabakoak**, Erein.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Gizona bere bakardadean**, Pamiela.
- ▶ Jon Mirande, **Haur besoetakoa**, Erein.
- ▶ Kirmen Uribe, **Bitartean heldu eskutik**, Susa.
- ▶ Rikardo Arregi, **Kartografia**, Alberdania.
- ▶ James Joyce, **Dublindarrak** (itzul., Irene Aldasoro), Alberdania.
- ▶ Agota Kristof, **Koaderno handia** (itzulp., Eskame Mujika), Alberdania.
- ▶ Sadeko markesa, **Filosofia apaingelan** (itzul., Bego Montorio eta Juan Martin Elexpuru), Txalaparta.

Hnuy illa nyha majah yahoo

JOSEBA SARRIONANDIA

ELKAR

Liburu batean mila liburu

Liburu batzuek beste liburu asko gordetezen dituzte barruan. Liburu bat aukeratzeko momentuan halakoren bat aukeratzea gustatuko litzaidake. Gure literaturan, edota gure hizkuntzan irakur ditzakegun liburuen artean badira zenbait liburu-gordailu. Gogora berehala etortzen zaigun adibidea *Obabakoak*

da, baina hainbeste hitz pilatu denez bere gainean, oraingoan beste hau aukeratuko dut: *Hnuy illa nyha majah yahoo*, Joseba Sarrionandiarena. Izenburuan bertan beste liburu baten aipamena datorkigu: Jonathan Swift-en *Gulliver-ren bidaiak* nobelari agertzen diren hitzak dira horiek. Baina Swift-ena aparte, poema liburu izugarri honek beste idazle eta mundu asko biltzen ditu barnean, euskal herrikoak zein mundu zabalekoak. Eta horrela, adibidez, “Mundu zabala eta arrotza da” izeneko poemak Agota Kristof-en *Koaderno handia* ekartzen dit gogora. Poeman ez dago nobelari buruzko aipamenik, eta, berez, ez zait inporta benetazko eraginik egon ote zen; akaso Sarrionandiak ez du idazle hungariarraren lana irakurri ere egin, baina, nire irakurketaren prozesuaren bidaiari, poema eta nobela gurutzatzen dira. Mundua koaderno handi bat da irakurtzen ikasi behar duguna. Izenburutik, *Hnuy illa nyha majah yahoo*, gogorazten digu Sarrionandiak mundua arrotza dela baina irakurketaren bitartez badugula arrotzasuna geureganatzeko aukera.



Rikardo Arregi Diaz de Heredia

(Gasteiz, 1958)

- ▶ Anjel Lertxundi, **Zorion perfektua**, Alberdania.
- ▶ Eduardo Gil Bera, **O tempora! O mores!**, Pamiela.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Gizona bere bakardadean**, Pamiela.
- ▶ Matsuo Bashô [et al.], **Lau bidaia** (itzul., Joseba Urteaga), Igela.
- ▶ Xabier Montoia, **Gasteizko hondartzak**, Susa.
- ▶ Angel Erro, **Gorputzeko humoreak**, Alberdania.
- ▶ Jokin Muñoz, **Bizia lo**, Alberdania.
- ▶ Ramon Saizarbitoria, **Gorde nazazu lurpean**, Erein.
- ▶ Manuel Bandeira, **Antologia** (itzul., Joseba Sarrionaindia), Pamiela.
- ▶ Juan Garzia Garmendia, **Itzalen itzal**, Alberdania.

Zorion perfektua

ANJEL LERTXUNDI
ALBERDANIA



Izenburu eder eta izugarri horrekin argitaratu zuen Anjel Lertxundik nobela hau 2002an. Hamasei bat urteko neska bat pianoa ikasten ari da eta Schumannen pieza bat, *Zorion perfektua* hain zuzen, gelditzen zaio behin eta berriro galdurik eskuetan, zorion perfektua helezina bailitzan. Bi eskuen artean ohikoa den oreka aldatzen da eta neskak ezin dio aurre egin aldaketa horri. Beste aldaketa gogorrago bat zain dauka kalean pianoaren erresumatik kanpo, zeren atentatu baten, hilketa baten lekuko izango baita. Urte batzuk geroago neskak, emakumeak hobeto esan, gogoratzen du hilketa hura, garai hura, egun hura, hirurak etengabe berpizten baitira bere kontzientziaren baitan. Gogoratu behar da Schumannen pieza hori *Haurtzaroko eszenak* deituriko bildumaren zati bat dela eta, beraz, zorion perfektu hori bakar-bakarrik haurtzaroan ezagutu ahal dutela agian gizon-emakumeek. Etikaz arduratzen da nobela, jarrera moralez. Haurtzaroko zorion perfektua utziko du nobelaren protagonistak eta, bat-batean, errealitatearen ankerra agertuko zaio begi aurrean, bere kontzientziaren bakardade mingotsa dastatuko du. Gutaz ere arduratzen da nobela, agian batez ere gutaz arduratzen da nobela; guztion tranpak, txikiak zein handiak, agerian daude bere gordinean, bere ezdeusean ere. Lertxundiren idazkera iradokitzailea, aberatsa eta garbia, batez ere garbia, da nobela honetan.



Harkaitz Cano

(Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1975)

- ▶ Kressmann Taylor, **Ezezaguna helbide honetan** (itzul., Ramon Etxezarreta), Erein.
- ▶ Rafael Dieste, **Intxixuen artxibotik** (itzul., Koldo Izagirre), Elkar.
- ▶ Max Frisch, **Homo faber** (itzul., Joxe Austin Arrieta), Elkar.
- ▶ Karlos Linazasoro, **Ez balego beste mundurik**, Alberdania.
- ▶ Raymond Queneau, **Zazie metroan** (itzul., Joxan Eloseggi), Ibaizabal.
- ▶ Ramon Saizarbitoria, **Rossetti-ren obsesioa**, Erein.
- ▶ Inazio Mujika Iraola, **Azukrea belazeetan**, Erein.
- ▶ Miren Agur Meabe, **Azalaren kodea**, Susa.
- ▶ Patxi Iturregi, **Haize kontra**, Elkar.
- ▶ Natalia Ginzburg, **Hirira doan bidea** (itzul., Pello Lizarralde), Igela.

Ezezaguna helbide honetan

KRESSMANN TAYLOR
EREIN



Baduzu lagun bat eta iruditzen zaizu betirakoa dela. Pentsaezina egiten zaizu etorkizuna haren adiskidetasunik gabe. Garai batean mami bereko izandako haiek elkarrengandik urruntzea gertatzen da, ordea, askotan. Urrutiratze hau izan liteke apurka-apurkakoa, haurtzaroa amaitu eta nerabezarora hastean interes eta grina ezberdinek eragina, graduala, utzieria beste errudunik ez duena. “Beharbada ez ginen hain lagun minak ere”, pentsatu eta aurrera jarraitzen duzu hasperen batekin, lantzean behin malenkonia zahar baten zitzada besterik sentitu gabe. Gerta daiteke laguna kontinentez aldatzea ere. Halakoetan, saia zaitezke Kressmann Taylorren liburuan bezala, adiskidearekiko urruntasuna gutunizketa baten bidez gaintzen... Baina zer gertatzen da gutunizketa hori 2. Mundu Gerra aurreko garaian kokatzen bada, kontinente zahar-rean den gure lagunaren iritziak pixkanaka nazien aldera lerratzen direla sentitzen badugu... nola eutsi, zer esan gutun truke horretan, nola izan lagun, nola ez etsaitu, nola neurtu kortesiaren mugak, nola saihestu garai bateko adiskidantza zaharraren kreditua betirako agortzea?

Aingeru Epaltza

(Iruñea, 1960)



- ▶ Koldo Izagirre, **Itsaso aiantzia**, Kriselu.
- ▶ Joan Mari Irigoien, **Poliedroaren hostoak**, Erein.
- ▶ Joxe Agustin Arrieta, **Abuztuaren 15eko bazkalondoa**, Elkar.
- ▶ Joseba Sarrionaindia, **Narrazioak**, Elkar.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Etiopia**, Erein.
- ▶ Anjel Lertxundi, **Hamaseigarrenean aidanez**, Erein.
- ▶ Jokin Muñoz, **Bizia lo**, Alberdania.
- ▶ Ramon Saizarbitoria, **Hamaika pauso**, Erein.
- ▶ Pako Aristi, **Kcappo**, Erein.
- ▶ Inazio Mujika Iraola, **Azukrea belazeetan**, Erein.

Itsaso aiantzia

KOLDO IZAGIRRE

KRISELU

Gaztetako bekatua

Idazle zailduak ez ohi dute beren estreinako liburua maite. Proba egin. Harrapazue obra dexenteko izkribatzailea eta, arnas egiteko astirik eman gabe, egiozue lehen liburuaren galdea. Atekatik ateratzen lanak. Adin batetik aitzina, aiantzura da gaztetako bekatuendako lekua.

Koldo Izagirre *Itsaso aiantzia* (1976, Kriselu) poema bildumarekin agertu zen euskal literaturaren plazara. Liburu aurkiezina dugu egun. Berrargitalpenik ez du izan, nik dakidala. Pasaitarrak olerkigintzari emandako gaine-rako lanak ez bezala, irakurlea alferrik nekatuko da sarean haren bila. Ez dago. Bertzeak bai. *Itsaso aiantzia* ez.

Atxagaren *Etiopiaren* aitzinetik (1978), zerbait apurtzailea ekarri zuen liburu honek euskal poesiara. Doinu berri bat, barnemina adierazteko bertzelako molde bat, kolorez, irudi ausartaz eta ironia oinazetuaz langarreztatu zuena poesia sozial orduan jaun eta jabearen basamortua.

Itsaso aiantziaren orri laburretan daude euskaraz idatzi diren amodio -eta aberri- poemarik ederrenetariko batzuk. Izagirrek aiantzarazi nahi izan du, beharbada, gaztetako bere bekatua. Ni, gazte nekez, baina bai bederen bekatari -itsas-tasunaren errebindikatzaile- bilakatzen nau "Itsaso aiantzia" berrirakurtzeak.





Igor Estankona

(Artea, Bizkaia, 1977)

- ▶ Koldo Izagirre, **Agirre Zaharraren kartzelaldi berriak**, Elkar-lanean.
- ▶ Gabriel Aresti, **Harri eta herri**, Susa.
- ▶ Patziku Perurena, **Isileko kantak**, Pamiela.
- ▶ **Joxe Mari Lopetegui: errepublikanoen bertsolaria** (edizioa, Joxan Elosegí), Paper Hotsak.
- ▶ Joan Mari Irigoien, **Babilonia**, Elkar.
- ▶ Anjel Lertxundi, **Konpainia noblean**, Alberdania.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Gizona bere bakardadean**, Pamiela.
- ▶ **Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak** (itzul., Joseba Sarrionandia), Pamiela.
- ▶ Markos Zapiain, **Zenbait terrorista**, Txalaparta.
- ▶ Harkaitz Cano, **Belarraren ahoa**, Alberdania.

Agirre Zaharraren kartzelaldi berriak

KOLDO IZAGIRRE

ELKARLANEAN

Kanpotik barrura

Kartzela askatasunaren antitesi legez tratatzeari uko egiten dion istorioa da Agirre zaharrarena. Amorraturik zulogintzan ari den norbait aurkezten digu Koldo Izagirrek nobelaren lehen orrialdeetan, gure subkontzienteak iheslariaren irudi klasikoa antzemango duela jakitun, harik eta iheslaria kartzela bateko patioan agertzen den arte. Hara non erakusten zaigun, beraz, kanpotik barrurako bidaia egin duen preso bolondresaren irudia.

Izan ere irauli egiten dira liburu honetan gatibutza eta zigorra bezalako konzeptuak, baina baita boterea, menekotasuna eta askatasuna bezalakoak ere. "Agirre zaharraren kartzelaldi berriak" ez da inor hunkitzeko idatzi, ezpada zirikatze eta dena hankaz gora jartzeko. Protagonistak anaia abertzaleekin, anarkistekin, sozialekin -preso guztiak dira funtsean politikoak- sufritzea aukeratu du, kartzelarik kartzela ibiltze hori bere askatasun hautu sakonena balitz bezala, bizirik sentiarazten duen egiteko primarioa.



Estibalitz Ezkerra

(Bilbo, 1979)

- ▶ Carlo Levi, **Kristo Ebolin geratu zen** (itzul., Koldo Biguri), Alberdania.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Groenlandiako lezioa**, Erein.
- ▶ Italo Calvino, **Marcovaldo edo urtaroak hirian** (itzul., Koldo Biguri), Ibaizabal.
- ▶ Raymond Carver, **Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean** (itzul., Koro Navarro), Elkar-Alberdania.
- ▶ Natalia Ginzburg, **Arratseko ahotsak** (itzul., Pello Lizarralde), Igela.
- ▶ Agota Kristof, **Berdin dio** (itzul., Eskarne Mujika), Alberdania.
- ▶ Anjel Lertxundi, **Zorion perfektua**, Alberdania.
- ▶ Ramon Saizarbitoria, **Rossetti-ren obsesioa**, Erein.
- ▶ Hiner Saleem, **Nire aitaren fusila** (itzul., Juan Kruz Igerabide), Alberdania.
- ▶ Joseba Sarrionandia, **Narrazioak**, Elkar.

Kristo Ebolin geratu zen

CARLO LEVI
ALBERDANIA



Faxismoa jabetu da Europaz. Mussoliniren agindupean den Italiako egoera ez da Alemaniakoa bezain larria. Arau zorrotzak ezarri badizkiete ere, juduek ez dute beren biziengatik beldurrik izateko arrazoirik. Oraingoz. Ezkerreko alderdietako militanteek, ordea, badute kezkatzeko motiborik. Hasi dira lehen atxiloketak egiten, luzea da torturaren itzala. Komunista izateagatik hartu dute preso nobela-

ko protagonista, baina ez dute gartzelara eraman. Bere maila soziala dela-eta zigor 'hobe' ezarri diote: Italia hegoaldera bidali dute, herrixka ninimo batera, erbesteratuta. Hara heldu eta berehala konturatuko da infernua bera leku aproposagoa izango litzatekeela, hain baita ankerra eta atzeratua egokitu zaion tokia, mundutik erabat isolatua! Nobela autobiografiko honetan Carlo Levik garai baten kronika eskaintzeaz gain, mendeetan zehar Italiako iparraldearen eta hegoaldearen artean egon den -eta oraindik mantentzen den- aldea azaltzen digu, gaur egungo egoera ulertzeko ezinbestekoa bihurtuz bere obra.



Arantxa Iturbe


(Alegi, Gipuzkoa, 1964)

- ▶ Lourdes Oñederra, **Eta emakumeari sugeak esan zion**, Erein.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Bi anai**, Erein.
- ▶ Mariasun Landa, **Kokodriloa ohe azpian**, Alberdania.
- ▶ Pako Aristi, **Kcappo**, Erein.
- ▶ Inazio Mujika Iraola, **Gerezi denbora**, Alberdania.
- ▶ Hasier Etxeberria, **Eulien bazka**, Susa.
- ▶ Julen Gabiria, **Han goitik itsasoa ikusten da**, Elkar.
- ▶ Jon Alonso, **Camembert helburu**, Susa.
- ▶ Natalia Ginzburg, **Arratseko ahotsak** (itzul., Pello Lizarralde), Igela.
- ▶ Harkaitz Cano, **Neguko zirkua**, Susa.

Eta emakumeari sugeak esan zion

LOURDES OÑEDERRA

EREIN



Teresa Wra joan da urtebeterako Andresek, bere senarrak, lana han topatu duelako. Europako hiri horretan Teresaren aspaldiko lagun baten etxean hartuko dute ostatu senar-emazteek, Luisen etxean. Luis ez da, ordea, edozein lagun Teresarentzat. Lagun bereziak izan ziren gaztetan. Eta oraindik irauten du zerbaitek bien artean.

Wrako bidaia ihesaldi baten hasiera da Teresarentzat. 35 urterekin nekatuta dago bizitzaz, bere bizimoduaz, eta kezkatuta, neke hori gaitz larriren baten ondorio izango ote den. Bere neke eta kezkek, bere beldurrek bere baitan bilduko dute Teresa.

Maitasunaz, gizonekin izandako harremanez, sexuaz, garai batean izan zenaz eta gaur egun denaz gogoeta egingo du Teresak.

Azkean, hainbeste pentsarazi dion hiri horretan bertan hartuko du erabakia. Bere bizitza erabat aldatuko duen erabakia.

Zuk ondo ulertuko duzu Teresari zer gertatzen zaion. Uneren batean pentsatu ere bai, nolaz ote dakien Teresak edo Teresa sortu duenak hainbeste zutaz. Galdera hoberik liburu baten aurrean?

Anjel Lertxundi

(Orio, Gipuzkoa, 1948)



- ▶ Herman Melville, **Bartleby izkribatzailea** (itzul., Juan Garzia Garmendia), Erein.
- ▶ Jon Mirande, **Haur besoetakoa**, Erein.
- ▶ Gabriel Aresti, **Harri eta herri**, Susa.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Obabakoak**, Erein.
- ▶ Ramon Saizarbitoria, **Egunero hasten delako**, Erein.
- ▶ Peio Lizarralde, **Larrepetit**, Erein.
- ▶ Inazio Mujika Iraola, **Azukrea belazeetan**, Erein.
- ▶ Harkaitz Cano, **Belarraren ahoa**, Alberdania.
- ▶ James Joyce, **Dublindarrak** (itzul., Irene Aldasoro), Alberdania.
- ▶ Ford Madox Ford, **Historiarik goibelena** (itzul., Xabier Olarra), Igela.



Bartleby izkribatzailea

HERMAN MELVILLE

EREIN

Aukeran, nahiago ez!

Hona hemen liburu klasiko bat, *klasiko* hitzaren zentzu askotarikoan: irakurtzen duzun aldiro, ertz berriak aurkitzen dizkiozuna; bere garaia gainditu eta giza kondizioaren muina biluzian erakusten duena. *Moby Dick* idatzi eta handik bost urtetara argitaratu zuen Herman Melvillek *Bartleby izkribatzailea*. Orri-kopuruari begirata, oso narrazio laburra; narrazio bukaerarik gabea, sortzen dituen oihartzunei erreparatzen badiegu.

Bizitzeko modurik onena erosotasuna dela uste duen abokatu batek Bartleby izeneko eskribatzaile bat kontratatu du. Umila dirudi gizonak, esanekoa, arazo handirik sortuko ez duena. Baina abokatuak ematen dizkion agindu guztiek erantzun beti bera jasotzen dute: 'Aukeran, nahiago ez'. Logikoa dirudi Bartlebyri, jaino garen orori bezala, bizitzan parte hartzea eskatu behar zaiola. Horixe eskatzen dio abokatuak ere behin eta berriro: har dezala parte bizitzan, izan dadila nor egunero zereginean. Bartlebyk, ordea, logika horrekin hausten du, eskribatzaileak 'aukeran, nahiago ez' jarrera du bizitzan nor izateko modua.

Neurosia, errebeldia, nihilismoa? Hori guztia eta gehiago. Jaiotzaren alferrikakoa eta jaino garenez bizi beharra aurrez aurre jarri dizkigu Bartlebyk. Inoiz agortuko ez den gaia inoiz agortuko ez den talaiatik begirata, horra Bartleby klasikoaren mirari beti modernoa.



Eider Rodriguez

(Oreeta, Gipuzkoa, 1977)

- ▶ Joseba Sarrionandia, **Lagun izoztua**, Elkar.
- ▶ Natalia Ginzburg, **Hirira doan bidea** (itzul., Pello Lizarralde), Igela.
- ▶ Bernardo Atxaga, **Obabakoak**, Erein.
- ▶ Edorta Jimenez, **Baleen barbaroa**, Txalaparta.
- ▶ Ramon Saizarbitoria, **Hamaika pauso**, Erein.
- ▶ Jon Mirande, **Haur besoetakoa**, Erein.
- ▶ Koldo Izagirre, **Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak**, Elkar.
- ▶ J.D. Salinger, **Zekale artean harrapaka** (itzul., Iñaki Iñurrieta), Elkar.
- ▶ Jean Rhys, **Sargazo itsaso zabala** (itzul., Txomin Arratibel), Elkar-Alberdania.
- ▶ Xabier Montoia, **Elektrika**, Susa.

Lagun izoztua

JOSEBA SARRIONANDIA

ELKAR



Noizbait nonbait norbait sortu, bizi eta hil. Denbora eta espazioaren arteko konjuzioak besterik ez da bizitza, eta ez da inoiz besterik izango. Sarrionandiak, bi zume horiek txirikordatuz idatzi du eleberria. *Lagun izoztua* ez da perfektua, inondik inora, eta ez da maisuki eraikia izan akaso, baina, horrek ez du, nik dakidala, liburu bat gomendagarri bilakatzen... *Lagun izoztua*, hori baino askoz gehiago da: bizitzaren esentziaren bila doa lehen lerrotik, nobela batek bete behar duen lehen manamenduari (Ez Gogaitu) izkin egin gabe, eta hori ez da ona ez txarra, hori, liburu hau, literatura da.